

Goi

Goierritarra aldizkaria

405 zenbakia 2011ko uztailak 15

ehm
ehunmilak
167 KM
ULTRATRAIL

UZTAILAK
15-16-17

MAITE GOÑI, INTERNETEK LILURATUTA



4. Beldia (GSPORT taldeak) Gaurerantziabuzess 2011ko irabazleak



GSPORT

EUSKADI

KIROL ARROPA PERTSONALIZATUA*

- ENPRESAK
- ZIKLOTURISTAK
- KIROL ETA LAGUN TALDEAK

NAFARROA ETORBIDEA 7, 20200 BEASAIN TEL: 943 106600 • 653743943
EUSKADI@GSPORT.ES

*5 ALEETATIK AURRERA





Consultorio Médico Quirúrgico
Kontsultorio Mediku Kirurgikoa.

Nafarroa etorb. 25 - 2.

Tel.: 943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

BEASAIN

Analisi eta erreabilitazioa:
Garmendia Otaola, 2-behea

Especialista eta zerbitzu ugari
Pediatria, Ginekologia, Dermatologia
Traumatologia, Dietetika eta nutrizioa

...

Zaindu zure osasuna. Etor zaitez!
www.consultoriomedicobeasain.com

R.P.S. Nº 149/10 LLG.



Eskaintza hau balagarria izango da 2011/08/31ra arte. Kontsulta itzazu optikan, kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da pilatu beste promozio batzuekin.

J.M. Barandiaran Enp. • Tel.: 943 88 99 88 • ORDIZIA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan



Inazio Usarralde

Aupa, Joxepa, ba al da opor usainik edo? Tira, etorriko ditun beren martxan eta... ondo joan daitezela zuentzat ere!

Aizan, egun hauetan Euskal Herrian dabilen hainbat kazetari elebakar (uler bedi, espainol) aztoratuta sumatu dinat Bildu koalizioko ordezkariak prentsaurrekoak euskara hutsean egiten hasi direla eta. Andoaingo alkateak eta

Gipuzkoako Ahalduen Nagusiak egin dituen hori kazetarien aurrean, nik dakidala.

Ba, aizan, legearen kontrakoa omen dela, hi, harrapazan! Zehazki, hara zer dioen El País-eko Isabel Landa kazetariak, hautsak lehenbizi harrotzen saiatu denak: *“No se tuvo en cuenta que, según el Estatuto de Gernika, el euskera y el castellano son las dos lenguas oficiales en el País Vasco y que “todos sus habitantes tienen derecho a conocer y usar ambas lenguas”.*

Hitzez hitz ekarri dinat hona kazetariaren aipua, sala-keta egiteko berak darabilen esaldiaz ohartzeko eta bere burua barregarri nola uzten duen ikusteko. EAEko bi hiz-

Maizpide txikitxo geratu behar zaigun


espainol hutsean lan egiten ohituta dauden

kazetari guztiei tokia egiteko.

kuntzak, euskara eta gaztelania, ofizialak badira eta herri-tarrok bi hizkuntzak ezagutu eta erabili behar baditugu non zegon arazoa nik neure agerraldi publikoa euskara hutsean egin nahi badut? Ez da ba izango denok espainolez derrigor jarri nahi gaituztela hizketan, gero *“zuen artean euskaraz ere egin dezakezue”* esateko?

Noski, kazetariak ez din inondik inora onartzen bera dela euskara ulertzeko gai ez dena. Izatekotan ere, bere lanean profesionalagoa izango bada, bera dela formazio premia daukana.

Bildukoak bezala, beste politikari euskaldunak gauza bera egiten hasten badira, Maizpide txikitxo geratu behar zaigun espainol hutsean lan egiten ohituta dauden kazetari guztiei tokia egiteko.



Joxepa Madariaga

Ai, ai, ai, ai! Zauria, gesala dariola dagoenean, goxatu egin behar izaten duk, Iñaxio, ez zirikatu! Baina askotan egoten gaituk gesaletan eta, ukendu gozoa eman ordez, ozipina ematen zigutek.

Kazetari espainolak, alkateak, ahalduen nagusia, Bildu... aipatzen dituk. Bi hizkuntza ofizialak, legeak, eskubideak, ezagutza eta erabilera... Ditugun eskubideak ondo baino hobeto ezagutzen dizkiagu, baina betebeharrak? Hortxe huts egiten diagu askotan, bai hizkuntza mailan, bai eguneroko bizitzako beste arlo askotan.

Eskubideen ondo-ondoan jartzen dugun errespetua ere dantzatu ohi zigutek, beti euskaldunok garelarik errespeturik gabe jokatzeko dugunak. Ezjakintasunak (bizi garen lekuko hizkuntza ez badakigu, ezjakinak garela ulertuta), prezio bat dik eta hori nork ordaindu behar dik, bi hizkuntzak dakizkien euskaldunak ala gaztelera bakarrik dakien elebakarrak?

Euskara hutsean funtzionatzen geroz eta leku gehiago

Ditugun eskubideak ondo baino hobeto

ezagutzen dizkiagu, baina betebeharrak?

Hortxe huts egiten diagu askotan.

tan hasi behako genikek, errespetua eta eskubidea aitzakia hartu eta bilera bikoitz asko egiten baitizkiagu (bilera bat euskaraz lehenengo eta gaztelera ondoren egitea, bi bilera egitea duk).

Lasai, Iñaxio!, Maizpiden egingo zieagu lekua euskara ikasi eta ikasitakoa erabili nahi duten kazetari guztiei, bai horixe! Lagunduko zieagu, garai batean bezala etxeetan hartu eta lo-lekua eta otorduez gain euskaraz hitz egiteko aukera eman behar badiegu ere.

Opor usaina aipatuz hasi haiz eta nik bukatu egingo diat, oporrak hartzeko desiratzen nagoela guztioi esanez. Geure herrian euskaraz bizi nauk baina gaztelaniaz mintzapraktika egiteko aprobetxatzen dizkiat nik oporrak, Euskal Herrikan kanpo, noski!

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama,
Itsasondo eta
Legorretakoko udalak



Goi
Goierriarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierriarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 775
Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Mesede ez da egin behar edozein preziotan:
gogoratu herriaren eta Jainkoaren izenean zer
nolako astakeriak egin diren historian zehar



Rufino Iraola Garmendia

Anai Junipero eta kontzientziaren bilakaera

San Frantziskoren lehen ikasle eta lagun kuttunetakoa izan zen anai Junipero; gizon txit apala eta karitate handikoa. Gaixo bat bisitatzea joan zelarik, zer nahi zuen galdetu eta hark erantzun: «Asko poztuko nintzateke, txerri-hanka bat eka-rikiko bazenit.»

Hala, hartu zuen labana eta txerri bati hanka moztu zion. Arreta guztiz prestaturik, gaixoari eraman zion, maitasun handiz. Gaixoak apetitu biziz jan zuen, eta anai Junipero benetan pozik zegoen.

Bien bitartean, txerriaren jabea fraideen komentura joan eta itxurontziak, litxareroak eta maltzurak, gaizkileak eta gizatxarrak deitu zien, haren txerriari hanka moztu ziotelako.

San Frantziskok isilka deitu anai Juniperori eta galdetu zion: «Zuk moztu al diozu hanka txerriari basoan?» Eta anai Juniperok erantzun: «Ene aita gozo, egia da, bai, txerriari hanka nik moztu diodala.», eta xehetasun guztiak kontatu zizkion; gero jarraitu zuen: «Benetan esaten dizut: anaia horrek hartu duen pozarekin, nik txerri bati ez ezik ehun txerriri moztu izan banizkie ere, ziur nago Jainkoak ontzat emango zuela.»

Orduan Frantziskok, oso nahigabeturik, esan zion: «O anai Junipero, baina zergatik eman duzu horren eskandalu handia? Gizon hura arrazoiz dago minduta eta gure kontra hain haserre; eta orain, beharbada, guri izen ona kentzen ibiliko da hirian. Obedientzia santuagatik agintzen dizut, bada: zoaz agudo haren bila, eta aurkitzen duzunean ahuspeztu bere aurrean eta ordain iezaiozu egindako kaltea.»

Nahiz eta Anai Junipero guztiz harrিতa geratu zen hitz horiekin, halako karitate-egintzagatik norbait haserretu zitekeelako, txerri-jabearengana joan eta kalte-ordaina eman eta barkamena eskatu zion. Txerri-jabeak onartu egin zuen kalte-ordaina eta dena barkatu zion Juniperori.

Alde batetik, badirudi anai Juniperok transeznditu duela kontzientzia egoikoa: handia du hurkoarenganako onginahia. Baina, bestetik, Jainkoa ipintzen du testigutzat, eta bere fedearan araberako saria espero du Jainkoarengandik. Frantziskok,

berriz, eskandaluari dio beldur eta txerri-jabeak zabal dezakeen izen txarrari. Lapurreta egin diotelako kexatzen da nagusia, txerria berea delako. Hiru portaerak dira ikuspegi dual eta egoarekin identifikaturiko kontzientziaren ezaugarriak.

Eta txerriaren eskubideak zer? Inor ez da errukitzen txerri gaixoa egoera negargarri horretan utzita! Frantziskok ere, hain animalia-zale izan arren, ez du aipatzen txerriaren egoera penagarria. Juniperoren kasua (ipuina?) ez dago gaurko mentalitate-tik epaitzerik, baina adibide ona da.

On egin behar da on egitea berez justifikatzen delako, eta ez zeharkako xede batengatik; adibidez, zerurako merituek egitearren. Mesede ez da egin behar edozein preziotan: gogoratu herriaren eta Jainkoaren izenean zer-nolako astakeriak egin diren historian zehar, karitateko obra askorekin batera. Fanatikoak, fedearnak izanda ere, harritu egiten dira beren ekintzak kritikatzeko bazezkie. Noiz hartuko dugu izaki guztiok, Jainkoa barne –eta animaliak ere– Misterioaren sarea osatzen dugulako kontzientzia, kontzientzia unitarioaren bidea?

Baikorra izan nahi nuke: badira kontzientzia egoikoa, apurka-apurka, transeznditu eta transpersonalera goazelako seinale batzuk: Gaur egun, oso gutxik onartuko luke Juniperoren portaera, gero eta gehiago aipatzen dira animalien eskubideak; GKE askok ez du fedearrekin zerikusirik: ez daukate Goikoaren izenean ezer justifikatu beharrik; on egitea berez baita ona, eta badakite edozein preziotan ezin dela ongia praktikatu. Eta badakite munduko herri aberatsei askoz gehiago exijitu behar zaiela; adibidez, %0,7ren inguruan presioa eginez, ustelkeria salatuz, eta abar. Zergak ordaintzen ditugunok horretarako ziletasun eta betebeharrak osoa dauzkagu. Herriaren eta Jainkoaren izenean, oraindik ere hiltzen da mundu zabalean, baina gero eta gutxiago. Heriotza-zigorren aurka ez gaude jarrera etikoa-ri eutsi nahi diogulako bakarrik, baizik eta ikusten hasi garelako, horrelako zigor bakoitzak, elkarrekin osatzen dugun sareari maila bat baino gehiago apurtzen dizkiola...

Bilbo: egitasmoaren 6. hiriburua

27. ibilbidea:

Armentia - Subilla

Giro sargoriarekin, ekainaren 14an, asteartea, 40 mendizalek, Gasteizko mendien mendebaldeko gailurrak zeharkatu ondoren, Argantzón herrira jaitsi ziren eta jarraian, Tuyo mendiak zeharkatuz, San Vitores lepotik Subillan bukatu zuten.

Ibilbidea eta denborak:

Armentia (550 m), Ezkibel gaina (815 m; 4,9 km; 1:05), Busto gaina (978 m; 9,4 km; 2:10), San Migel gaina (944 m; 11 km; 2:30), San Migel lepoa (870 m; 11,5 km; 2:40), Argantzón (490 m; 18,4 km; 4:15), Tuyo gaina (805 m; 22,6 km; 5:30), San Vitores gaina (891 m; 25,6 km; 6:30), Subilla (537 m; 30 km; 7:55).

Gorabehera metatuak: igoeran: 1.000 m; jaitsieran: 1.015m.



Goierriko ibiltariak Euskal Herriko tzulian Subilla-Urduña bidean.

28. ibilbidea:

Subilla - Untzaga

Ibilgiro onarekin, ekainaren 21ean, asteartea, 36 mendizalek, Tetxa haitzarte ingurutik abiatuta, Arkamu mendilerroan barrena ibili ondoren, Delikako ur-jauziaren albotik igarota, Gibijo mendiak zeharkatu zituzten eta Aiaraldeako Untzaga herrian bukatu zuten ibilaldi polit hau.

Ibilbidea eta denborak:

Subilla (537 m), Kotorrillo gailurra (1.085 m; 7 km; 2:00), Azkorri gaina (1.88 m; 8,7 km; 2:20), Peña Alta gailurra (1.122 m; 12,8 km; 3:25), Kruzeta gailurra (1.172 m; 15 km; 4:10), Portilloko Potzua (1.070 m; 17,5 km; 4:45), Erea gaina (1.110 m; 19,5 km; 5:15), Delikako ur-jauzia (825 m; 27 km; 7:00), Peñas Nerbinas - Bertzeta gaina (811 m; 29,5 km; 8:00), Untzaga herria (670 m; 32,5 km; 9:00).

Gorabehera metatuak: igoeran: 820 m; jaitsieran: 685 m.

29. ibilbidea: Tertanga - Encima de Angulo

Hodeiak nagusi eta ibilgiro freskoarekin, ekainaren 30ean, 40 mendizalek, Aiaraldeako Tertanga herritik gora eginenez, Fraileburu ingurutik hasita, Gorobel mendilerroa zeharkatu ondoren, Burgosko lurretan bukatu zuten.

Ibilbidea eta denborak:

Tertanga (340 m), Txarlazo gailurra (938 m; 3,8 km; 1:45), Txalope gailurra (1.032 m; 4,9 km; 2:05), Solaiera gailurra (1.039 m; 5,4 km; 2:20), Bedarbide gailurra (1.041 m; 8 km; 2:55), Mojon Alto gaina (1.070 m; 11,3 km; 4:00), Menerdiga ataka (1.090 m; 14 km; 4:25), Ataxako Ataka, Ungino gailurra (1.105 m; 16,8 km; 5:00), Las Escalerasko Ataka - Eskutxi gailurra (1.185 m; 19,2 km; 5:45), Aro Gaina (1.137 m; 21 km; 6:10), Aroko Ataka (990 m; 21,9 km; 6:30), Encima de Angulo (470 m; 26 km; 7:30).

Gorabehera metatuak: igoeran: 1.200 m; jaitsieran: 1.075 m.

30. ibilbidea:

Inortza - Bilbo

Giro beroarekin, uztailaren 5ean, asteartea, 40 mendizalek, Arabako lurraldean atzean utzita, Bizkaiko lurraldera sartu ziren. Ganekogortatik Pagasarriaino joan ziren, Bilbon bukatzeko. Honenbestez, egitasmoko 6. hiriburura iritsi dira.

Ibilbidea eta denborak:

Inortza (160 m), Idubaltza tontorra (690 m; 5,7 km; 1:45), Beraskola tontorra (660 m; 8,8 km; 2:30), Arrazuria baserria, Zaldu herria (115 m; 14,2 km; 4:45), Berazako lepoa (360 m; 16,1 km; 5:40), Landetako lepoa (550 m; 17,4 km; 6:10), Kiputxetako Landa (710 m; 19,5 km; 6:30), Gallarraga tontorra (902 m; 21 km; 7:00), Pagasarri tontorra (670 m; 28 km; 9:00), Igertuko lepoa (290 m; 30 km; 9:30), Larraskitu (220 m; 31 km; 9:40), Bilbo (80 m; 32,3 km; 10:00).

Gorabehera metatuak: igoeran: 1.800 m; jaitsieran: 1.880 m.

Zegamako Udala, Segurako udaletxea...

Maizpide euskaltegia

Jexus, Maria eta Joxe! **Udala, udaletxea, udalbatza, udalerria...** Hitz politikak bai, baina bereizten ote ditugu?

Udaletxea:

Hitzaren zati bati erreparatuz gero, etxeari buruz ari garela konturatuko gara. Hortxe biltzen da udalbatza (eta herritarrak), eta alkateak bertan izaten du bulegoa. Herriko administrazio-gorabeherak bideratzeko etxea.

- ✓ *Esango al didazu, mesedez, udaletxera nola iritsi?*
- ✓ *Udaletxeko erlojua bost minutu atzeratuta dabil.*

Udala

Udalerria gobernatzeko eta kudeatzeko antolakuntza-organoa. Eta zein pertsonak osatzen dute? Bada, hauek: alkateak, alkateordeak, udalbatzak... eta, batzuetan, gobernubatzordeak ('junta de gobierno').

- ✓ *Lazkaoko Udalaren egitasmoak jendearen oniritzia jaso du.*

Udalerria

Lurrak, herritarrek eta antolakuntzak osatzen dute. Gaztelaniaz 'municipio' izenez ezagutzen duguna! 'Término municipal' esateko ere erabiliko dugu.

- ✓ *Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien izenak ikasi ditu gure Josuk.*

Udalbatza

Alkateak eta zinegotziek osatzen dute. Alkatea udalbatzak berak aukeratzen du. Erabaki inportanteenak ere udalbatzak hartzen ditu. Gaztelaniaz 'corporación municipal' esaten dena.

- ✓ *Udalbatzaren atzoko osoko bilkuran ("plenoan") bi gai besterik ez zuten aztertu.*

Eta, bide batez, beste hauek ere azter ditzagun...

Udaltzaingoa

Udaltzainei dagokien herri-zerbitzua; edota euren egiteko-tzat udal ordena zaintzea duten pertsona-multzoa.

- ✓ *Udaltzaingoa erabakiko zer egin bainbat urtez apaletan eduki dituzten galdutako gauzekin.*

Udaltzaina

Hiri nahiz herri-ordena zaintzeko eta udal aginduak bete-arazteko zeregina duen funtzionarioa edo aginteduna.

- ✓ *Joxe Miel udaltzainak atzo isuna jarri zidan autoa gaizki apartkatzeagatik.*

Udaltzainburua

Udaltzainen burua.

- ✓ *Joxe Miel eta gainerako udaltzainak udaltzainburuaren esanetara daude.*

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Zeraingo udaletxeak eskutitza bidalio dio On Roke apaizari.
2. Donostiako Udala dotore baino dotoreagoa da.
3. UEMAn sartuta dauden udalerriak gero eta gehiago dira.
4. Udalbatzakoak, hamaiketakoak egin eta gero, elizara abiatu omen ziren.
5. Joxe Miel udaltzainak jarri zidan, bada, atzo horrelako isuna! Dedio!

OHARRA: lehenengoan **Udalak** behar du; bigarreanean, **udaletxea**; azken hirurak zuzenak dira.

ZAHARRA • BERRI IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA


A. Almeida

620 32 62 92

943 18 03 72

aiakoerrota@terra.es

ATAUN




Eraikuntzak

Gremioen koordinaketa

Erreforma orokorrak

Teilatuak



Iñauti Hartz Klinika

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zbk. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)

KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN

☎ 943 88 46 28





Ainara Urteaga



“Liburuek ez dute kosk egiten eta animatu irakurtzera. Eutsi liburu bat!”

Eutsi liburu bat! kanpaina jarri dute martxan uztail honetan Itsasondon. Liburuak herritarrengana gerturatu nahi izan dituzte eta horretarako, herriko gune ezberdinetan, era eta genero ezberdinetako liburuak jarri dituzte, bakoitzak gustukoa hartu, etxera eraman eta irakurtzeko. Ainara Urteagak, Itsasondoko Udaleko teknikariak, azaldu ditu kanpaina honen nondik norakoak.

Zergatik eta zertarako 'Eutsi liburu bat' kanpaina?

Udan liburutegira jende gutxiago gerturatzen da eta beraz, liburu gutxiago irakurtzen dira. Bestalde, denbora gehiago ere izaten dugu. Gure asmoa, liburutegia kalera ateratzea izan da.

Herritarrek zein lekutan aurkituko dituzte liburuak?

Udaletxean, Kaxintane tabernan, gaztelekuan, janari dendan, mediku etxean eta jubilatuek etxean daude.

Zein liburu mota jarri dituzue aukeran?

Liburu desberdinak daude: eleberrak, haurrentzako ipuinak, aldizkari desberdinak. Euskarazkoak eta gaztelarazkoak jarri ditugu.

Toki bakoitzean zenbat liburu egongo dira?

Bakoitzetik 4 edo 5 liburu daude eta aldizkari batzuk. Aukeratutakoan zein eraman duten, orritxo batean apuntatu behar dute.

Zenbat denboran izan dezake liburua etxean?

15 egunez izan ditzakete eta gero liburutegira itzuli behar dituzte.

Jendeak zer nolako harrera egin dio kanpainari?

Oso egun gutxi da martxan jarri genuela eta ezin dut baloraziorik egin. Jendeari momentuz kuriositatea sartu zaio, gero ikusi egin behar erantzuna nolakoa den.

Liburutegira ez al da jenderik gerturatzen udan? Zergatik?

Neguan, mugimendu gehiago izaten da baina udan oso gutxi animatzen da jendea eta ikusten da liburu gutxiago hartzen direla. Agian, irakurtzea gustuko dugunontzat, uda, garai paregabea da irakurtzeko baina beste batzuk nahiago dituzte beste gauza batzuk egin.

Zuk zeuk, uda honetan irakurtzeko liburua aukeratu al duzu?

Bai pare bat badituz buruan. Toti Martinez de Lezearen 'Veneno para la corona' eta euskaraz Joseba Sarrionandiaren 'Moroak gara behelaino artean?'.
Gustuko liburu bat?

Gustuko liburu bat?

'Los buscadores de Conchas', Rosamunde Pilcher-ena eta 'Amaren eskuak' Karmele Jaioren liburuak, azken honek, bereziki hunkitu ninduen.

Gustuko genero bat?

Gehienbat nobelak irakurtzen ditut baina egia esan, harrapatzen dudak guztia irakurtzen dut. Irakurle amorratua naiz.

Irakurtzeko zaletasunik ez duenari zer esango zenioke?

Liburuek ez dutela kosk egiten eta animatu irakurtzera. Eutsi liburu bat!



Teknologia berriek “liluratuta” bizi da
Maite Goñi ordiziar irakaslea:

“Internetek asko lagun diezaioke euskarari”

Internetek eta teknologia berriek bizitza aldatu diote Maite Goñiri: Ordiziako Jakintza Ikastolako Batxilergoko euskara irakaslea izateaz gain, Mondragon Unibertsitean ere teknologia berrien irakasle eta aholkularia da. Internetek “liluratuta” bizi da eta internetek eskaintzen dituen aukerez baliatzen saiatzen da.

Teknologia berrietara eta internetara “kateatuta” bizi da Maite Goñi ordiziarrak. “Kateatuta, baina kontzienteki kateatuta, gustatzen zaidalako. Beti konektatuta nago: 24-7. 24 orduz, 7 egunez”.

Ikasketaz filologoa bada ere, “autoprendizaiaz”, teknologia berrietan ere aditua bihurtu da. “Gogoia eduki behar da ikasteko. Hori bezalakorik ez dago. Bizitza osoko apendizaiia, guk bilatu dezakegu. Nahi duguna ikas dezakegu. Dena dago interneten. Benetan ikasi nahi baduzu, ez daukazu itxoin beharrik halako ikastaroa antolatu arte. Jarrera kontua da”, dio ordiziarrak.

Bizitza erabat aldatu dio internetek eta lan berria ere badu Mondragon Unibertsitatean, teknologia berriei loturikoa.

Euskal filologian eta ingeles filologian lizentziatua zara.

Baina azkenaldian, interneten eta teknologia berrietan ikusten zaitugu burubelarri. Nolatan murgildu zara?

Ikasketaz filologa naiz baina orain dela 6-7 urte, Jakintza Ikastolan hasi ginen, IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) munduari buelta bat ematen. Talde bat sortu genuen, IKT koordinatzaile bat geneukan, etapa ezberdinetakoa jendea sartu ginen eta gai hauei buruz kezkatzen hasi ginen. Nola erabiliko genuen teknologia berria, didaktikoki, egunero jardunean, klaseetan, txer-tatzeko. Talde horretatik Ikteroa bloga sortu genuen. Jokin nire lankideak sortu zuen eta gero Mikel eta ni sartu ginen. Han hasi ginen ezagutzen genituen tresnak eta gure hausnarketak plazaratzen. Ikusi genuen, harridura handiz, beste irakasle batzuk kezka berdina zituztela. Gurekin hasi ziren partekatzen euren kezka. Denon artean, sare txiki bat osatu joan ginen.

Jakintza ikastolatik abiatu zen sare txiki hori.

Jakintza Ikastola aitzindari eta erreferente bat izan da. Alde batetik bestera asko ibiltzen naiz eta beti erreferente bezala Jakintza Ikastola da. Garai hartan, IKT taldeak bakarrik ez, zuzendaritzak ere apustu handia egin zuen eta bere lehen-tasun estrategikoen artean sartu zuen IKT mundu hori. Gurasoek ere kezka hori zuten. Elementu guztiek bat egin zuten apustu horrek aurrera egin zezan.

Sistema honekin irakaslearen papera aldatu egingo da, ezta?

Erabat. Nik lehen, gelara joan eta hitz egin eta hitz egin egiten nuen. Denbora guztian azalpenak ematen, ikasleak ixilik... Orain oso oso ezberdina da. Irakaslearen papera derrigorrean aldatu beharra dago. Gehiago da dinamizatzea, gaiak, proiektuak planteatzea...

Internetek bizitza aldatu digula esaten da.

Nirea bai behintzat! Orain lan ezberdina daukat. Mondragon Unibertsitatean ari naiz lanean. % 30a Ikastolan jarraitzen dut eta % 80 Unibertsitatean ari naiz. Irakasleen formazioan nago, IKT alorrean, aholkulari bezala ere bai. Graduan eta masterrean ematen ditut IKT-eak hezkuntza arloan. Beste alor bat da Mondragon Online, Mondragon Unibertsitateko online sarea. Onlineko mundu horretan nola sortu onlineko ikastaroak... plataformari nola atera etekina sarean dauden baliabide guztiei, online ikastaroak, kalitatezkoak, nola sortu... Hitzaldiak eta

ikastaroak ematen ditut...

Internetez gain, euskararen arloan ere lan egiten duzu.

Internetak lagundu du euskararen normalizazioan?

Nire uste apalean, bai eta gehiago egitea dauka. Nire ustez sarean ez dago hizkuntza handirik edo txikirik. Dena gure eskura dago eta nahi dugun ekarpena egin dezakegu. Borondatea eta gogoia baldin badago, dauden baliabideekin, gauza asko egin daitezke ordaindu gabe.

Zer behar du euskarak sarean eta zer nola heda daiteke? Batez ere edukiak behar dira. Beti jartzen den adibiderik garbiena, wikipediarena da. Wikipedian oso goian gaude, garen hiztun kopuruarekiko, beste hizkuntza batzuekin alderatuta. Eta hemendik gutxira askoz ere gehiago izango garela espero dut. Administrazioetik ere bultzada eman behar zaio. Nik uste dut jendea kontzientea izan behar dela, ekarpen txikiek egiten dutela ekarpen oso handia. Hori da klabea. Eta bakoitzak bere esparruan. Unibertsitatean adibidez, jakintza asko dago gorde-ta, kajoietan. Hori dena modu digitalean, denon eskura jarrita. Euskaraz behar dira edukiak eta bakoitzak bere esparrutik egin behar du.

Bizitza arruntean bezala dago euskara interneten. Ez dut ikusten desberdintasunik dagoenik. Lehenengo jarrera zaindu

behar da. Tuentin ere, lehenengo hitza euskaraz egin dezatela. Guk horretan asko lagundu dugu. Internauta euskaldunok, blogariok, borondatez, euskara zabaltzen nahian, gauza asko itzuli ditugu, euskaraz daude programa gehienak, eta erakutsi dugu euskaraz ere posible dela erabiltzea. Baina nik uste dut gehiago egin behar dela. Bakoitzak bere esparrutik edukiak aportatuz. Norbaitek zaletasunen bat baldin badauka blogen bat egitea, wikipedian artikuluren bat idaztea, besteen blogetan komentatzea...

Youtubek ere erraztasun handiak ematen ditu. Mundu

guztia ibiltzen da youtuben. Aukera dago azpitu-tuluak euskaraz jartzeko. Ez dago arazorik diru aldetik. Jarrera eta kontzientzia-zioa da kontua. Nik uste dut internetek asko lagun diezaioketela euskarari. Askok gainera! Baina horretarako pausoak eman behar dira. Jendeak jakin behar du nola eman pauso horiek. Jendea formatu ere egin behar da.

Plaza ona dauka beraz euskarak.

Plaza ikaragarria dauka! Ez gaude gaizki kokatuta. Oso jende aktiboa dago baina gehiago behar da. Euskararen kontuarekin beti gertatu da: oso jende aktiboa egon da, euskararen alde, erre diren arte. Saiatu behar gara sareko jendea ez erretzen eta sarea zabaltzen.

Hainbat termino berri sortu behar izan dira euskaraz.

Zein bide erabiltzen duzue hitzak sortzeko?

Polita da nola ibiltzen garen termino berriak sortzen. Bat hasten da erabiltzen eta normalean besteak ere hasten dira hitz hori erabiltzen, edo eztabaida sortzen da hitzaren inguruan. Horregatik, oso inportantea da termino hori adostea. Askotan aplikazio batean sartzen gara eta hitz bera era ezberdinak erabiltzen da. Favoritos adibidez nola esaten da? Batzutan laster-marka, gogoenak... askotan ez dakigu zertaz ari garen hizketan. Beraz, oso inportantea da adostea. Orain arte zer egin

“Sarean ez dago hizkuntza handirik edo txikirik. Dena gure eskura dago eta nahi dugun ekarpena egin dezakegu. Borondatea eta gogoia baldin badago, dauden baliabideekin, gauza asko egin daitezke ordaindu gabe”.



da? Erabili ahala terminoa orokortu. Horretan ere eszeptiko samarra naiz eta hor ere papera eta hitza hartu beharko ditu hartu behar duenak. Hor daukagu Euskaltzaindia eta hasi beharko du horrelako terminoak bateratzen, edo gutxienez jakin dezagun nora jo. Dena den, nik uste dut nahiko ondo moldatzen garela.

Beste kontu bat da, termino horiek, euskarazkoak sortu ala ingelesezkoak erabili. Gaztelaniaz ingelesetik datozen termino asko erabiltzen da. Hor oreka bat bilatu behar da. Ez da inork ulertuko ez duen gauzarik egin behar. Euskara erabiltzeko erraztasuna bultzatu behar da, gehiegi konplikatu gabe. Baina ondo egongo litzateke termino horiek ahalik eta azkarren adostea, normalizaziora iriste aldera.

Hitzaldi eta ikastaro ugari ematen dituzu internetaren inguruan. Besteak beste, segurtasunaren gaiaz.

Plaza oso handia da internetekoa. Eta denetik dago. Internet eta segurtasunaren inguruan hitz egiten dudanean, beti, aukerak eta arriskuak aipatzen ditut. Aukera mordo bat ditu eta arriskuak, kalean bezala daude, berdin-berdin. Guraso batek, seme-alaba bat lehenengo aldiz kalera joaten denean ez dio uzten kalea gurutzatzen edo nondik joan behar duen esaten dio... hori ere erakutsi egin behar zaio. Zer gertatzen da? Gaur egun kontraesan bat dagoela: guraso askok ez dakite zein den interneteko zeharabidea. Gure ikasleak, gure seme-alabak natibo digitalak dira, jaiotzez digitalki egon direlako. Baina erakutsi egin behar zaie.

“Plaza oso handia da internetekoa. Eta denetik dago. Internet eta segurtasunaren inguruan hitz egiten dudanean, beti, aukerak eta arriskuak aipatzen ditut. Aukera mordo bat ditu eta arriskuak, kalean bezala daude, berdin-berdin”.

Bi jarrera daude: bat, ez ikusiarena egitea eta bestea, nik aholkatuko nukeena, gainean egotea, batez ere lehenengo pausoak eman behar dituztenean. Lan partekatua izan behar du eskolak eta familiak. Eskolak bakarrik ezin du beregain hartu. Alfabetizazio digital horren alde egin beharko du eskolak. Portaerak, jarrerak... etxetik ere mezu berdintsuak eman behar dira.

Legazpiko ikastetxe guztietan egon naiz 5. mailatik DBH2ra bitarteko ikasleekin. Irakasleekin ere egon naiz. Askok dituzte kontuak 9-10 urtekin tuentín eta ez dakite igotzen den guztia tuentírena izan daitekeela, zerbait igotzen badute (lagunek baino ezin dutela ikusi jarrira izanagatik ere), edozein gauza bistaratzen dela gorde daitekeela eta zabaldu daitekeela. Arrasto digitala uzten da egiten den guztiarekin... Horrelako minimo batzuk jakin egin behar dira. Ikasleak oso harrituta gelditzen dira horrelako kontuen adibideak erakutsita.

Gaur egun ezin dugu ez ikusiarena egin. Badakigu interneten ibiliko direla eta gu ere bai. Saiatu interneten ekoizten, produzitzen, ekarpenak egiten, arrasto digital hori uzten, baina onerako izan dadila.

Euskaljakintza.com

Jakintza ikastolan euskal hizkuntza eta literatura ikasgaia ematen duzu Batxilergoan. Euskaljakintza.com sortu duzue.

Ni oso etsita nengoen. Batxilergo 2. mailan euskal hizkuntza eta literatura ematen dut eta ikusten nuen selektibitateari begira gehiago arduratzen zirela matematika, fisika eta horrelako gaietaz. Euskararekin ez ziren gehiegi kezkatzen. Klasera joaten nintzen eta galdetzen zidaten, zertarako ikasi behar dugu hau, ez bada selektibitatean sartzen? Zerbait gertatzen zen. Beraiek ez zeuden motibatuta eta ni are gutxiago. IKTen sartu nintzen eta bloga ezagutu genuen garai hartan. Hortik web 2.0 mundura sartu ginen. Nire lankideek animatu ninduten blog bat sortzera. Buelta asko eman nizkion eta ez nuen nahi zerbait gehigarri bezala erabiltzea, baizik eta, metodologikoki aldatu egingo genuen ikasgaiaren planteamendua. Testu liburua baztertu egin genuen eta harrezkero guk geuk sortzen dugu gure "testu liburua". Ikasi behar ditugun edukiak geuk egiten ditugu. Gramatika, literatura... edukiak errepasatzeko ariketak sortzen ditugu. Hori dena besteen eskura uzten dugu, sarean. Gure filosofia zen, guk sortutako guztia besteekin konpartitzea. Gure ezusterako, garai hartan (gaur egun ere ez dago gehiegi) ez zegoen ia ezer ere euskaraz, eta gure ariketak egitera beste ikastetxeetatik, euskaltegietatik Euskaljakintzara pasatzen ziren. Edukiak sartzen eta sartzen joan gara eta sei urteren ondoren esan dezakegu, altxor txiki bat daukagula.

Nola lan egiten duzue?

Proiektuka lan egiten dugu. Planteamendu ezberdinak dira. Salatzten naiz ikasleek izan dezaten protagonismo oso, klasee-



tan aktiboak izaten, pixka bat euskararekiko jarrera alda dezaten. Hori da niretzat inportanteena. Ez da bakarrik euskarako eduki batzuk lantzea, bai gehiago, euskararen alde, sarean, gure esparru txiki-txiki honetatik gauzak egitea. Sarean denok zerbait jartzen badugu, asko izan daiteke.

Sei urte daramazue Euskaljakintza.com-ekin. Zein balorazio egiten duzue?

Nik ikusten dut lehen baino askoz ere hobeto lan egiten dutela. Gaur egun blogean argitaratzeak ematen die beste erantzunkizun bat. Gure artikuluak oso publikoak dira. Lana egiterakoan ere beste ikuspegi bat ematen du. Eta zeharka, teknologia berrietan trebatzen dira.

Gustatuko litzaidake ikastolako ibilbidea bukatzen dutenean sarean ekarpenak egiten jarraitzea. Tresnak eman dizkiegu. Filosofia ere barnearazi diegu. Eta gustatuko litzaidake horrekin jarraitzea.

Oso kuriosoa da dagoen moda: jakinda gauza bat ilegala dela, adibidez, porro bat erretzea ilegala dela eta porroa erretzen ari den argazki bat igotzea. Oso modan dago. Gauza batzuk, ilegalak ez izanagatik, ezegokiak dira. Askotan harrotasunez lagunei erakusten zaizkie argazkiak, jakin gabe, argazki hori beharbada, zure kontra itzuli daitekeela. Zure kontrako proba bezala erabil ditzateke.

Ezinbestekoa da alfabetizazio digitala. Sarea beteta dago gurasoentzat aholkuekin, sarean seguroxeago ibiltzeko... gure ikasle asko 'minijuegosetan' ibiltzen dira, eta hor dagoen propogandak askotan birusak zabaltzen dituzte. Hori ere jakin egin behar da. Hori ere gurasoei interesatzen zaie. Egia esateko, gurasoak oso kezkatuta daude gai honekin. Normalean ez dute ezikusiarrena egiten eta kezkatu egiten dira.

Arlo horretan normaltasunera iritsi gara. Arauak jarri egin behar dira, mugak jarri behar dira. Eta adinaren arabera, gauza bat ala bestea, segurtasunez ibiltzeko.

Internetek, sare sozialek... iraultzak ahalbidetzen ari dira mundu zabalean.

Mundu arabiarren adibidea hor dago.

Nik uste dut badela garaia ikuspegi hori aldatzeko: internetek, txarrerako edo onerako, gauzak zabaltzeko balio du. Izugarritzko erraztasuna

dago ematen ari dena, lehen ezkutuan gelditzen zen hori, onerako ala txarrerako, garraiatzeko.

Oso kuriosoa da: duela urte batzuk twitter, freeky batzuen kontua zen eta gaur egun albistegietan iturri bezala aipatzen dira. Helerazteko moduan gauzak asko aldatu dira. Zu nonbaiten baldin bazaude, pertsona arrunta zara eta zure kamararekin gertatzen ari den zerbait grabatzen baduzu eta nonbaitera igotzen baduzu, zabaldu egiten duzu. Ez daukazu itxoin beharrik hurrengo eguerdiko 2etan azalduko den albistegian ikusteko. Beste iturri batzuk daude. Asko aldatzen ari da eta oraindik ere askoz gehiago aldatuko da.

Jendeak gaur egun mugikorrek ditu, momentuan zer gertatzen ari den twiteatzeko erabiltzen du. Bat-batekotasun handia dauka.

Informazioa guri nola iristen zaigun ere alde handia dago. Gaur egun ez gara informazioaren bila joaten, informazioa gugana etortzen da. Badaude sistemak, zuk zure egunkari pertsonalizatuak egiteko RSSren bidez. Zer jaso nahi duzun aukeratu dezakezu. Egunkari honetatik sail bat, bestetik beste hori... Infinitoak dira aukerak, jakin egin behar dira horiek denak kudeatzen. Niretzat liluragarria, zoragarria da bizitzen ari garena.

“Gustatuko litzaidake ikastolako ibilbidea bukatzen dutenean sarean ekarpenak egiten jarraitzea. Tresnak eman dizkiegu. Filosofia ere barnearazi diegu. Eta gustatuko litzaidake horrekin jarraitzea”.

Ega-ko azterketen gorabehera

Duela urte batzuk EGA azterketak Euskaljakintza.com-en jarri zenituelako zalaparta handia sortu zen.

Nik baimena banuen 05-06 EGAKo azterketa liburua argitaratzeko. Banan-banan, eduki guztiak sartu nituen interneten. Tresnak ezagutzen nituen eta aplikazio batekin sareratu nuen. Baimena eskatu nuen eta baimena eman zidaten. Sarean jarri nuenean, izugarritzko oihartzuna izan zuen. Jende mordo dago urtero-urtero EGA prestatzen duena eta jende askok erabiltzen du material hori. Nire ikasle guztiek EGAKo liburua erosten dute. Ikasleek gelan egiten zuten atariko frogak bat behin eta berriz eginez gero, bisualki geratu egiten da erantzuna. Sarean jarrita, aldiro, kargatzen denean, hurrenkera ezberdinean kargatzen dira ariketak. Aukera asko ematen ditu eta oso aproposa iruditu zitzaidan formatu digitalera pasatzeko eta horrela hasi nintzen.

Ikusita zein oihartzun eta zein arrakasta izan zuen, animatu nintzen 03-04koa pasatzea. Harentzako ez nuen baimenik eskatu. Baimen hura uste nuen, EGAKo liburuak digitalizatzeko baimena zela. 03-04 urteetan egon zen sarean eta inork ez zuen ezer ere esan.

Noiz eta zergatik sortu zen arazoa?

Opor batzuk hartu behar nituenean, 07-08ko liburu berria iritsi zen eta liburu berriak formato ezberdina zeukan. Azkar-azkar pasatu nuen, azterketa berehala zen eta gure ikasleek ikas zezaten. Gu ez gara euskaltegikoak eta guri ez zaigu iristen aldaketan berri. Nire ikasleek oporretan ikas zezaten, liburua pasatu nuen sarera. 0-8ko azterketak bakarrik pasatzeko denbora eduki nuen. Jarri nuen, norbaitek ikusi zuen eta Eusko Jaurlaritzakoei esan zien eta kontua da Jaurlaritzatik deitu zidatela,

esanez, mesedez, modu oso onean, liburua erretiratzeko. Zein zen arazoa galdetu nien, nik erretiratuko nuela, baina ez nuela zergatia ikusten... Horretarako baimenik ez nuela eskatu esan zidaten. 03-04rako baimenik ez nuela eskatu esan nien eta urteak zera-matzala... Hitz hauekin erantzun zidaten, ez zaizkit sekula ahaztuko, "liburuak bere ibilbidea egin arte ezin nuela argitaratu". Ikusita zenbat jende erabiltzen zuen, esan nien, niri iruditzen zitzaidala, beraiek zirela hori hor jarri behar zutenak, eta ez beste inor. Baina erretiratuko nuela.

“Ideia asko dauzkat material horrekin zer egin daitekeen eta baina beraien ardura da”

Baina zer gertatzen da? Nik blogean, hitz horiek argitaratu nituela. Uholde bat sortu zen. Euskadi Irratiko Amarauna programan kolaboratzen dut eta gaiak galdetu zidaten eta bi hitzetan nire iritzia eman nuen. Irratikoek esan zidaten, hurrengo astean Eusko Jaurlaritzako bertsioa jasoko zutela. Gaia baretuta zegoenean, Amaraunako programa horretan, pirata bat nintzela deitu zidan Eusko Jaurlaritzako batek, ez neukala baimenik... Nik garbi esan nuen ez neukala baimenik. Eta jendea asko hasarretu zen. Nola pirata deitu? Maite bere lana egiten ari da, oporretan, liburuak digitalizatzen, xentimorik kobratu

gabe... eta zuek daukazue aurpegia pirata deitzeko? Posturak areagotu egin ziren. Gaia itzaldtu egin zen arren, jende askok galdetzen dit honetaz.

Dena den, zure lana beti errekonozitu izan du Eusko Jaurlaritzak.

Beraiek komunikatu bat atera zuten eta medioek ere, nahi zutena jarri zuten. Komunikatu hartan, esaten zuten, nik ez neukala baimenik, baina onartzen zuten izugarritzko lana zela, eta denagatik eskerrak ematen zizkidaten. Eta gerora ere elkarrekin jarraituko genuela lanean. Komunikabideetan bakar-bakarrik atera zen, nik ez neukala baimenik.

Garai hartan esan nuen ixilik egongo nintzela, gauza bat esan eta beste bat argitaratzen delako, eta zuelako merezi. Esfortzu handi bat eginez ixilik geratu nintzen. Baina uste dut badela garaia gauzak argitzeko: beraiei oso ondo iruditzen zitzaien lana, hala ere esan zuten, nik eskatu egin behar nuela baimena. Egia da, liburuaren ibilbide hori ez dakidala zer den. Orain baimena eskatuta dago eta sarean dago liburua.

Hainbeste zalaparta sortu zuen materiala interneten dago.

Aurten, pentsatu dut: liburuak egingo al zuen bere ibilbidea? Ikasleentzat liburuak erosi nahi nituen eta agortuta zegoela esan zidaten. Liburu osoa klik batean argitaratzeko nuen eta jende askok eskatu zidan sarean jartzeko... Baina errespetatu egin nuen Eusko Jaurlaritzak esan zuena. Nire ikasleei ere ez nien utzi egiten. Pentsa! Orain baimena eskatu dut eta orain, eskerrak emanez eta lanagatik zorionduz, jartzeko esan didate.

Nik ideia asko dauzkat material horrekin zer egin daitekeen eta gustura emango nizkien ideiak. Baina iruditzen zait beraien ardura dela.

over Urraki
Bidaietan adituak

**ETORRI ETA ERRESERBATU
ZURE UDAKO OPORRAK**

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz
egindako
ogi
naturala*

Intxausti eremua, 14G-14H nabek
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore, TPT, Barandi Delicatessen.
Ordizia: Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana, Ainhoa dietetika, Noemi frutadenda. **Olaberria:** Lurdesen denda. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Idiazabal:** Joxan harategia, Eguzki dietetika. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda frutadenda, Ametsa harategia, Ekilore dietetika. **Urretxu:** Dia, Belarzain. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza, Apatxo, Txixiki, Uriarte-Pinedo.



Irakurle batzuk egongo dira, elkarrizketa hau gutxi ulertu dutenak. Nola azalduko zenieke Internet zer den?

Ni oso txarra naiz definizioak emateko. Leiho zabal-zabal bat, aukera pilo bat dituen, denetarik ikusteko eta bizitzeko. Kontsultarako balio duen zerbait eta batez ere. Zuk egin deza-kezu zure edukia, eta besteekin partekatu, eta internetari indarra horrek ematen dio. Niri alor hori gustatzen zait gehiena internetetik. Aktibo izan zaitezke. Denon ekarpenekin osatzen da dagoen plaza zabal hori.

Ulertu ez duenak, interneten saltseatzea du onena, probak egiten dira. Seguru, ziur nago, denok topatuko dugula zerbait gustukoa duguna. Ez da hitz egin behar interneti buruz, internet bizi egin behar da, sartu egin behar da, saltseatu egin behar da, eta batez ere onurak bilatu behar dira eskaintzen dizkigun aukera guztietatik.

Urteak pasa dira, baina Euskadi Gaztean ere ibili zinen.

Karrera bukatu nuenean, opor garaian, ordezkapenak egiten aritu nintzen. Euskadi Gazteko kontratuta bukatu eta hurrengo egunean Jakintza Ikastolan hasi nintzen lanean. Diskoa jarri, publizitatea, telefonoa hartu, hitz egin... ez zegoen ezer ere digitalizatuta. Dena guk egin behar genuen. Askok gustatu zitzaidan. Karrera bukatu berria nintzen.

Atzera begiratuta, beti esaten dut, zeinen interesgarria den gauza ezberdinetan lana egitea! Bizitzak zenbat buelta ematen dituen! Ikusi zer ikasi nuen eta zertan ari naizen! Begira zertan hasi nintzen lanean eta zertan ari naizen orain. Hori da polita, bizitzak buelta asko ematea.

“Internetek, txarrerako edo onerako, gauzak zabaltzeko balio du. Izugarritzko erraztasuna dago ematen ari dena, lehen ezkutuan gelditzen zen hori, onerako ala txarrerako, garraiatzeko. “



Atletismo Taldeko teknikoa da ordiziarra

Jose Antonio Peña, bizitza osoa atletismoari lotuta

Ordiziako Atletismo Taldearen historian, Jose Antonio Peñak bere lekua egina dauka. Ia 30 urte daramatza dakiena atleta gazteei erakusten. Peña bera gaztea zela, pisu jaurtiketan aritu zen eta jubenil mailan, Espainiako txapela lortu zuen.

59 urte ditu Jose Antonio Peñak eta ia bizitza erdia darama Ordiziako Txindoki Atletismo taldean dakiena erakusten. 80 hamarkadatik atletismoan murgilduta bizi da eta Txindoki Atletismo Taldearen arimetako bat da Jose Antonio Peña ordiziarra, batez ere, Josetxo Imaz eta Txato Caballero gure artetik joan zirenetik. Ordiziako atletismoaren erreferente nagusia da. Ordiziako Udalak ematen dituen Kirol Saria jaso zuen 2010ean, atletismoaren alde egindako lana aitortzeko. Goierriarrak gertuagotik ezagutu nahi izan du Peña. Hona hemen emaitza.

16 urte zituen arte Peña bera atletismoan ibili zen. Pisu jaurtitzen zuen, bere adinerako, mutil handia eta indartsua zen. Espainiako txapelduna izan zen jubenil mailan. Pisu jaurtiketa utzi eta 19 urte zituela, bere lagun kuadrillak saskibalo taldea sortu zuen Ordizian. Baina denbora gutxi egin zuen atletismotik urrunduta. "Txato Caballero zenak esan zidan behin azaltzeko. Astelehen batean azaldu nintzen eta gaur arte. Beti ikasten, eta beti erakusten. 30 urte eramango ditut hemen. Guk erakutsita jendea ateratzen ari da eta horrek poza ematen du", adierazi du ordiziarrek.

1993an atera zuen atletismoko monitorearen titulu nazionala atera zuen. Ramon Cid, Justo Lillo, Felix Larrea zena, Jon Karla Lizeaga... izan zituen irakasle. "Azkeneko azterketa egin eta trenean korrika etorri nintzen, Kilometroak festa zen eta nire kuadrilla Goierri zegoen lanean. Korrika eta presaka etorri nintzen lanera".

Atleta onak

Txapeldun handiak atera dira Ordizian eta horrek poza ematen du. Azkenaldian, Alazne Furundarena punta-puntan dabil. "Alazne Furundarena orain ez dago gurekin, Atletico San Sebastianen dago, baina gure taldekoa bezala da, hemendik atera da-eta. Primeran ari da.



Espainiako txapeldun pisu jaurtiketetan

Jose Antonio Peña bera ere, atleta izandakoa da. Pisu jaurtiketetan aritzen zen. Espainiako txapelduna izan zen gazte edo jubenil mailan. Bost kiloko bola, 14 metrora botatzen zuen. Ordiziako Lasallen egin zituen egin zituen lehenengo pausoak. Dena den, garai hartan Ordizian ez zegoen atletismo talderik eta Donostiara joaten zen entrenatzera. Hango entrenatzailearekin gorabeheraren bat edo beste izan zuen eta 16 urterekin atletismoa utzi zuen. Honela gogoratu ditu Peñak gaztetako kontuak: "Txikitatik handia izan naiz. 10 urterekin, 1,75 neurtzen nuen eta 100 kilo pisatzen nituen".

Handia izateak arazo bat baino gehiago sortarazi zion, ezagutzen ez zuen jendeak ez baitzion sinesten zeukan adina. "Urte batean irabazi nuenean, nirekin moskeatu ziren, zaharragoa, handiagoa nintzela esaten zuten. Nortasun Agiririk eta ezer ez zen egoten 18 urtera arte eta nik beti poltsikoan, jaiotza agiria eramaten nuen. Gizon puska nintzen. Ezagunek bazekiten nire adina, baina kanpoan ez. Beraz, nik beti eramaten nuen jaiotza agiria. Hurrengo urtean, hirugarren egin nuen. Aurreko biak ni baino zaharragoak ziren. Izan zitekeen baina ez dakit. Entrenatzaileari esaten nion urteak galdetzeko. Ez zidan kasorik egiten. Galtzeak ez ninduen kezkatzen, adin berdinekoak ez izatea zen nire kezka. Horrela izanda ez zegoen arazorik. Batek, aurpegian, bizarra bete-betea zeukaten. 14-15 urterekin hainbesteko bizarra?", dio ordiziarrek. Entrenatzailearekin aldetik ez zuen babes handiegirik sentitu eta utzi egin zuen atletismoa.

Hori bai, Peñak, berari irabazi zion mutil handi katalanaren izena buruan ondo gorde zuen eta handik denbora batera jakin zuen bera baino zaharragoa zela. "Bere izenarekin gelditu nintzen eta handik 20 bat urtera, niri irabazten zidana ikusi nuen. Ni baino bi urte zaharragoa zen. Ez zegoen orain bezalako kontrolirik. Gaur egun fitxak dauzkate eta txapelketa guztietan fitxa horiek erakutsi behar dituzte".

Atletismoa utzi eta saskibaloian hasi zen. "Gure kuadrillak sortu zuen saskibalo taldea", azaldu du ordiziarrek.



Kirolaren Saria 2010

lazko abenduan Kirolaren saria eman zion Ordiziako Udalak. “Polita izan zen baina nik beti esaten dut, saria, kirolariei emateko. Gu atzean gaude. Egin duenari eman diezaiela saria. Niretzat errekonozimendu hobea eta garrantzitsuagoa da atletetek beraiek eskerrak ematea; eta horrelakoak badaude”, aitortu du Peñak.

Europako bi minima egin ditu. Europako txapelketetan parte hartuko du Polonian. Espainiako txapelduna ere atera zen uztailaren lehenengo asteburuan, 100 m., 200 m., eta 4x100an. Urtero, Espainiako txapelketara taldeak eramaten ditugu, eta ondo dago. Gazteetan, 300 metroan, txapeldun atera da, Ataun Aiako Janire Agirre. Pista estalian bigarrena egin zuen. Bultz egiten beti datoz gazteak”.

Mutilak erakartzen lan gehiago

Bi nesken izenak aipatu ditu Peñak. Mutilak ere badira baina ordiziarrek adierazi duenez, mutilak atletismora erakartzea gehiago kostatzen da. “Neskekin ondo moldatzen ari gara, kadete mailako neska taldea ere atera dugu. Euskadi mailan bigarren gelditu gara eta Euskal Herri mailan hirugarrenak. Mutilekin gehiago kostatzen

“Udalak emandako saria polita izan zen baina errekonozimendu hobea eta garrantzitsuagoa da atletetek beraiek eskerrak ematea. Eta horrelakoak ere baditugu”

da. Zailagoa da. Futbolera edo errugbira joaten dira gehienak. Errugbia ere indartsu dago eta txikitatik ari dira jendea hartzen. Guretzat gutxiago gelditzen da”.

Dena den ikastetxeekin ere badute harremana. Eskola kirolaren barruan atletismoan ere aritzen dira Goierriko haurrak eta gaztetxoak. Beraz, ondoko deia egin nahi du Peñak: “norbaitek etorri nahi badu, etorri eta kitto. Ez dugu mugarik jartzen”. Atletismo taldera gerturatzeko adinean mugarik ba ote dago-

en galdetu diogu. “12-13 urte”, erantzun digu. “Hasieran denetik egiten jartzen ditugu, gero hasten dira aukeratzen. Aukera handia dago atletismoan: korrika, abiadura, jauziak, jaurtiketak, hesiak...”, gaineratu du.

Atletismoan aukera handia egoteagatik, gehienek, fondoak aukeratzen dutela dio. “Errazena” da. Korrika eta korrika egitea da. Besteek, entrenamendu intentsiboagoak egin behar izaten dituzte. Abiadura, jauziak denetik egin behar izaten da hankak

indartzeko. Proba guztiak gustatzen zaizkit baina niretzat politenak, niretzako, 200 metroak eta erreleboak dira”.

Instalazio berriak

Urteotan guztiotan bitzta asko aldatu da eta atletismoan ere bai. Entrenatzeko modua adibidez. “Lehen, 27-28 urterekin utzi egiten zuten atletismoa baina orain kirolarien adina ere igotzen ari da. Janaria zaindu egiten dute, entrenamenduak erabat ezberdinak dira... prestatzaile onak ditugu. Jon Etxeberria oso ona da, Alazneren entrenatzailea da. Jende prestatua daukagu taldean. Jon Aranburu ere oso ona da”.

Entrenamendu motaz gain, duela hiru urtetik gainera instalazio berriak dituzte eta ordiziarra gustura dago azpiegiturekin. “Zorte handia daukagu. Pistarik onena daukagu abiadura egiteko. Jendeak primerako markak egiten ditu”, zehaztu du.



“200 metroak eta erreleboak gustatzen zaizkit gehien”

Beteranoetan ibiltzen zara?

Ez, ezin dut gainera, sorbalda minduta daukat. Astean hiru egunetan 12 kilometro egiten ditut oinez.

Atletismoko proba bat:

200 metro eta erreleboak.

Atletismoa ez den kirol bat:

Saskabaloia. Eskubaloia ere bai. Futbola, egunetik egunera gutxiago gustatzen zait.

Futboleko atezaina ere izan zinen.

Federatuta ez nintzen egon, kuadrilla mailan aritu nintzen.

Ikusi duzun atletarik onena?

Sebastian Coen, Steve Ovett, Sergei Bubka.... Konplotoena, orain dela 20-30 urte konbinatuak egiten zituen, Hombre 10 deitzen zioten. Daley Thompson zen. Gaur egun, proba batzutan, Espainiako errekorrak izango ziren markak zeuzkan. Bikila... asko daude.

Festetan ibiliko zara?

Parrandan ibiliko gara, bai.

Festetatik gehiena gustatzen zaizuna?


Danborrada, kuadrilla eguna. Pelota partiduak ikustera joaten naiz, batzutan Matutina ere bai.

HITZAren itzaletik ibiltzeko...

GOIERRIKO hitza ^{abc} + **Go!**
Goierriko Hitza

Egin harpidedun
uztailaren 29a baino lehen
eta jaso eguzkitako hau opari

Harremanetarako:
902-82 02 01
harpidetza@hitza.info





Goierriko bi lasterketa handiak

Uztailaren 15ean, Beasaingo plazatik
18:00etan hasiko da Ehunmilak proba eta
23:00etan Goierriko 2 Handiak

Beaingo Arrastaka mendi taldeak antolatuta, aurten bigarren aldiz, Ehunmilak eta Goierriko Bi Handiak mendi lasterketak abiatuko dira Beasaingo plazatik uztailaren 15ean. Ehunmilak probako lasterkariak, arratsaldeko 6etan atera dira, Gipuzkoan barrena, 168 kilometro egiteko helburuarekin. 251 lagunek eman dute izena. Goierriko Bi Handiak proba burutzeko helburuarekin, gaueko 11etan abiatuko dira 177 lagun korrikalari. Antolatzaileek eta boluntarioek dena prest dute.

Ehunmilak ultratrail (168 km)

Antolatzaileak eta boluntarioak buru belarri ari dira lanean azkenorduetan, Ehunmilak eta Goierriko Bi Handiak probak behar bezala ateratzeko. Iazko esperientziaz baliatuta, baikor dira antolatzaileak. Dena prest dute. Gaur bertan, uztailak 14, arratsaldeko 4etan hasiko dira korrikalariak dortsalak eta materiala jasotzen.

Ehunmilak

251 korrikalarik hartuko dute parte Ehunmilak ultratrailean. Euskal Herrian egiten den lasterketarik luzeena da berau. Gipuzkoan barrena, mendiz mendi, 168 km egin beharko dituzte. Hauxe da egin beharko duten ibilbidea: Beasain, Usurbe, Murumendi, Mandubia, Izazpi, Urretxu-Zumarraga, Santa Barbara, Irimo, Elosu, Hirukurutzeta, Azkarate, Madarixa, Erlo, Azpeiti, Arauntza, Etumeta, Gazuma, Zelatun, Tolosa, Altzo, Amezketa, Txindoki, Ganbo, Gañeta, Lareo, Lizarrusti, Etxegarate, Otzaurte, San Adrian, Aizkorri, Urbia, Andraitz, Oazurtza, Mutiloa, Lierni, Españolamendi eta Beasain. Lehenengo korrikalariak uztailaren 16ko arratsaldeko 6ak aldean iristea aurreikusten dute antolatzaileek (iaz ordu hartan iritsi zen Imanol Aleson, lehenengo korrikalaria). Azkenekoak berriz, 24 ordu beranduago, uztailaren 17ko arratsaldeko 6etan.

10 goierritarrek hartuko dute parte: Aitor Garmendia, Imanol Rezola, Jaione eta Gorka Sasieta, Unai Garcia, Bene Aguilar, Patxi Xabier Leon, Aitzol Arruabarrena, Mikel Estala eta Guillermo Pinillos.



Parte hartzaileak

251 parte hartzaile izango dira guztira Ehunmilak proban: 236 gizonezko eta 15 emakumezko. Jatorriari dagokionean gehienak Euskal Herrikoak badira ere, kanpotar ugari izango da egunotan Goierriin.

Emakumezkoak

Jatorria	Kopurua
Euskal Herria	9
Aragoi	1
Katalunia	2
Madril	1
Portugal	1
Colorado (AEB)	1

Gizonezkoak

Jatorria	Kopurua
Euskal Herria	154
Espainia	69
Portugal	9
Frantzia	2
Australia	1
Colorado (AEB)	1

Ordutegia

Iazko ordutegiak kontuan izanda, antolatzaileek, ondorengo ordutegia aurreikusten dute.

Kontrolgunea	Azkarrena	Motelena
Beasain	18:00	18:00
Mandubia	18:55	19:50
Zumarraga-Urretxu	19:55	22:25
Elosua	20:55	00:30
Madarixa	23:25	03:00
Azpeitia	01:10	07:15
Zelatun	02:30	10:00
Tolosa	02:30	14:00
Jazkue gaina	04:00	16:45
Amezketa	04:55	18:45
Txindoki	06:40	21:15
Lizarrusti	09:00	01:30
Etxegarate	11:15	05:15
San Adrian	13:30	08:15
Oazurtza	15:30	12:00
Mutiloa	16:40	15:00
Beasain	18:10	18:00

* Uztailaren 15eko ordua

* Uztailaren 16ko ordua

* Uztailaren 17ko ordua

Goierriko 2 Handiak (88 km)

Uztailaren 15ean, gaueko 11etan, abiatuko dira Beasaingo Plazatik, Goierriko Bi Handiak egingo dituzten 177 korrikalariak. Irabazlea, hurrengo eguneko, uztailaren 16ko 10:40ak aldera iristea aurreikusten dute antolatzaileek. Iazko edizioan, helmugan lehena, Xabier Larrion beasaindarra izan zen. 13h 39' 05" behar izan izan zituen 82 kilometro burutzeko. Emakumezkoetan lehena, beste goierritar bat izan zen, Elena Calvillo, Beasainen bizi den ordiziarra. 15h 36' 48" behar izan zituen lasterketa bukatzeko. Xabier Larrionek aurten ere parte hartzeko asmoa dauka. Elena Calvillok, beste ikuspegi batetik jarraituko du lasterketa, antolaketa, lanean arituko baita, boluntario taldean.

Ondorengo goierritarrek hartuko dute parte: F. Javier Calvillo, Miguel Perez, Aitor Gallardo, Beñat Azurmendi, Ion Zugasti, Jose Fidalgo, Iñaki Zubeldia, Juan Carlos Cuadrado, Aitor Etxebeste, Xabier Larrion, Mikel Mujika, Aitor Irazustabarrena, Jon Alustiza, Mikel Mendizabal, Iker Zurutuza, Oihan Galparsoro, Marta Cordero, Koldo Urrestarazu, Jon Zabala, Igor Auzmendi, Prontxio Santoyo, Eneko Mujika, Jon Usandizaga, Jon Irastorza, Alex Sukia, Xabier Irastorza, Xabier Irazustabarrena eta Carlos Moran.



Parte hartzaileak

177 korrikalarik parte hartuko dute Goierriko 2 Handiak proban. 13 parte hartzaile izango dira emakumezkoak eta gainerakoak, 164 gizonezkoak. Jatorriari dagokionean, hona hemen datuak.

Emakumezkoak

Jatorria	Kopurua
Euskal Herria	3
Valentzia	3
Katalunia	3
Andaluzia	2
Madril	1
Errioxa	1

Gizonezkoak

Jatorria	Kopurua
Euskal Herria	141
Espainia	20
Portugal	1
Frantzia	1
Montevideo (Uruguay)	1

Ordutegia

Iazko ordutegiak kontuan izanda, antolatzaileek, ondorengo ordutegia aurreikusten dute.

Kontrolgunea	Azkarrena	Motelena
Beasain	23:00	23:00
Zaldibia	23:40	00:25
Txindoki	02:00	04:15
Lizarrusti	04:00	08:00
Etxegarate	06:00	12:00
San Adrian	07:20	14:15
Oazurtza	08:50	16:30
Mutiloa	09:40	18:30
Beasain	10:40	21:00

* Uztailaren 15eko ordua

* Uztailaren 16ko ordua

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Inplantologia
Periodontzia

Artikulazio eta ahoko minak
Radiologia digital zerbitzua
Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118



ASEPLAN S.L.
A H O L K U L A R I T Z A - E N P R E S A K

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MEREKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

REPS. Nº 45-50/10.

Goza ezazu udako melodiarekin



%25
-rainoko
deskontua

GAESek oparien, deskontuen eta abantailen konbinazio egokia eskaintzen dizu, udan zure entzumena zain eta hobe dezazun.



GAES
Entzumen Zentroa

Punta-puntako teknologia prezio ezin hobean!

eta eraman ezazu opari eder hau!



Eskaintza hau baliagarria izango da 2011/07/31ra arte.

Nafarroa Etorbidea, 13 • Tel.: 943 80 55 89 • BEASAIN | J.M. Barandiaran Enp. • Tel.: 943 88 99 88 • ORDIZIA



Goierritarra baino gehiago



ale zaharrak PDF-n

goierritarra.hitza.info

iritzi artikuluak

Goierriko agenda eguneratua

eduki gehigarriak

azken aldizkariko eduki osoa

aurrerapenak

Idiazabal

San Inazio jaiak

Uztailak 29, ostirala:

19:30etan: Sagardo dastaketa.

Ondoren: Mahaiak jarriko dira afaldu nahi dutenentzat.

24:00etan: Warking Boys eta The Pardels musika taldeen kontzertua.

Uztailak 30, larunbata:

16:30etan: Patata tortilla lehiaketa.

19:00etan: Asto karrera.

21:00etan: Bertso afaria.

Ondoren: Unsain anaiak musika taldea.

Uztailak 31, igandea: San Inazio eguna:

12:00etan: Meza San Inazio ermitan.

Ondoren: Hamaiketakoa emango du Udalak.

15:00etan: Mus txapelketa.

18:00etan: Haurrentzako jolasak.

Pello Ramirezen eta Xabier Zeberioaren kontzertua

Uztailak 22, ostirala:

20:00etan: Beste musikak jardunaldien barruan, Pello Ramirez eta Xabier Zeberio izango dira, herriko plazan. Bi musikari hauek ON bikote proiektua aurkeztuko dute. Bertan myckel harpa (Erdi Aroko teklazko biola suediarra) eta akordeoi kromatikoaren fusioaz gozatzeko aukera izango da.

Lizarrusti

Ostegun eta igande goizetako egitaraua

Uztailak 14, osteguna:

09:00etan: Mendi ibilaldia artzaintza gaitzat hartuta. Zailtasun baxua. Iraupena: 4 h 30'. Prezioa: 8 euro pertsonako (bikote eta familientzat prezio berezia).

Uztailak 17, igandea:

09:00etan: Mendi ibilaldia artzaintza gaitzat hartuta. Zailtasun baxua. Iraupena: 4 h 30'. Prezioa: 8 euro pertsonako (bikote eta familientzat prezio berezia).

Uztailak 21, osteguna:



09:00etan: Akaitz Txikiko kobara irteera. Zailtasun baxua. Iraupena: 1 h 15'. Prezioa: 9 euro pertsonako (bikote eta familientzat prezio berezia).

Uztailak 24, igandea:

09:00etan: Mendi ibilaldia Oiduegiko bordetara. Zailtasuna baxua. Iraupena: 4 h 30'. Prezioa: 6 euro pertsonako (bikote eta familientzat prezio berezia).

Uztailak 28, osteguna:

08:00etan: Mendi ibilaldia Putterrira. Zailtasun ertaina. Iraupena: 5 h 30'. Prezioa: 6 euro pertsonako (bikote eta familientzat prezio berezia).

	Egin harpidedun		
GOIERRITARRA <input type="checkbox"/>	HITZA <input type="checkbox"/>	GOIERRITARRA+HITZA <input type="checkbox"/>	
<small>urtean 29 euro</small>	<small>urtean 70 euro</small>	<small>urtean 75 euro</small>	
• Izen-abizenak:		• NA:	
• Lanbidea:		• Jaioteguna:	
• Helbidea:		• Herria:	
• P.K:		• Tel.:	
• Posta elektronikoa:			
• Kontu zenbakia: <input type="text"/>			
902-82 02 01 harpidetza@hitza.info Urbialde plaza, 7 behea • Beasain			



SILVIAMIRASCASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zko. 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

TERAPIA ALTERNATIBOEN ZENTROA

Oriamendi, 24 - Beasain

Osteopatia, Sakro-garezurreko Terapia, Masajea, Reflexologia - **Arantxa Urkia: 606 381 534**

Homeopatia, Masajea, Sakro-garezurreko Terapia, Kiropraxia - **Maite Larraza: 656 325 005**

Beasain

Pello Ramirez eta Xabier Zeberio
musikariak Igartzan

Uztailaren 24an, 19:00etan, Pello Ramirez eta Xabier Zeberio musikariek osatzen duten On proiektua aurkeztuko dute Igartza jauregian.

Segura

Erdi Aroko II. kultur astearen
azken txanpa**Uztailak 14, osteguna:**

'Nafarroa 1512. urtean' hitzaldia, Nabarralde Elkartearen eskutik, 19:00etan, Ardixarran.

Uztailak 15, ostirala:

Ardixarran, 19:30ean: Tailerra: XIII-XIV. mendeko emakumeen buruko zapiak (tokatuak). Gidaria: Sanca Tocador Femeninas.

Uztailak 16, larunbata:

Araoz Gazte abesbatzaren emanaldia (Kutxa Gizartekintzak sustatuta), 19:00etan, Ama Jasokundearen Parrokian.

Ataun

Ataungo Organo Barrokoaren
nazioarteko jaialdia**Uztailak 16, larunbata:**

20:00etan: Tourseko Martin Deunaren Elizan, Letizia Romitiren organo kontzertua.

Lazkao

Udako ikastaroetako
kultur ekintzak**Uztailak 14, osteguna:**

22:00etan: 'Drindots' musika taldea, Plazan.

Uztailak 28, osteguna:

22:00etan: Txalo antzerki taldearen 'Baginaren bakarriketak', Plazan.

Uztailak 21, osteguna:

22:00etan: 'Fiachras' musika taldea, Plazan.

Uztailak 28, osteguna:

18:00etan: Trikibertsopoteoa: Endika Igartzabal eta Gorka Maiz bertsolariak, eta Joseba Iztueta eta Iban Maiz trikitilariak. Lazkaoko tabernetan hasi eta Maizpideko jangelan bukatuko da.

Abuztuak 3, asteazkena:

21:30ean: Koldo Amestoy ipuin kontalaria, Maizpideko zinema aretoan.

Abuztuak 11, osteguna:

21:30ean: Bertso jaialdia Maizpideko zinema aretoan: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Amaia Agirre eta Maialen Lujanbio; gai-jartzailea: Iñaki Rezola.

Abuztuak 25, osteguna:

20:00etan: Dani OiARBIDE eta Pello Urdangarin trikitilariak Maizpideko jangelan.




ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

UDAKO MATRIKULA ZABALIK!

ERREPASOA, ERREKUPERAZIOAK

UNIBERTSITATE MAILA (MU)

INFORMATIKA IKASTAROA

IKASKETA TEKNIKAK

IKASKETA ARAZOAK, IRAKURMENA,

ULERMENA, ARRETA...

INGELERA TRINKOA

Joan Iturralde, 5 Beasain

tel.: 943 160 120

www.ikaskide.net

Gabiria

Aztiriko festak

Uztailak 15, ostirala:

18:00etan: Kanpai joaldia eta etxaflero jaurtiketa, jaien hasiera adierazteko.

18:30ean: Haur eta gaztetxoentzat jokoak eta txokolate jana.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketak auzotarrentzat.

21:00etan: Auzo afaria, Aztiria erretegian, Gari eta Larrañaga trikitilariak alaiturik.

Uztailak 16, larunbata:

11:30ean: VI. Helduen eta gazteen arteko futbol partida, Gaintzabal zelaian.

Ondoren: Indarrak berreskuratzeko, poteo herrikoa.

16:00etan: XXI. Aztirira igoera. Jubenil mailako txirindularen lasterketa.

18:00etan: Aztiriko XVI. patata tortilla lehiaketa.

Ondoren: Pintxo, ardo eta sagardo banaketa.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketak.

Arratsalde osoan: Trikitilariak ibiliko dira.

23:00etan: Gari eta Larrañaga trikitilarien erromeria.

Uztailak 17, igandea:

10:00etan: Goiz eresia Gabiriako txistulariekin.

10:45ean: Gabiriako Udalarri ongi etorria.

11:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Auzoko nagusienari omenaldia eskainiko zaio.

11:00etan: Aztiriko VII. Mendi lasterketa.

12:30ean: Gabiriko Goruntza dantza taldearen saioa. 40. urteurrena dutenez, dantzaldi berezia eskainiko dute.

13:00etan: Katarain eta Eguzkitza trikitilariak alaiturik, mendi lasterketaren sari banaketa.

18:00etan: Trikitilariak.

18:30ean: Herri kirol erakustaldia: Joxe Ugarteburu eta Xabier Zaldua aizkoran, eta Goenatxo harri jasotzen.

19:00etan: Gipuzkoako bola txapelketa.

Uztailak 18, astelehena: Santa Marina eguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Hamaiketako auzotarrentzat, Aztiri Bat elkartean.

Gabiria

San Lorentzo eguna, Ugaran Goikoa auzoan

Abuztuak 10, asteazkena:

11:00etan: Meza San Lorentzoren kaperan.

Ondoren: Hamaiketako Korta jatetxean.

14:00etan: Bazkaria Kortan.

16:00etan: Mus txapelketa.

21:00etan: Auzo afaria Kortan.

Afalondoa: Herriko eta kanpoko bertsolarien saioa. Auzoko helduenari omenaldia eta oroigarria ematea.

Goizaldera arte: Dantzaldia.

Gabiria

Alegi auzoko festak

Uztailak 22, ostirala:

12:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Gabiriko Goruntz dantza taldearen ekitaldia.

Jarraian: Hamaiketako.

19:30ean: Sagardo festa: sagardo dastaketa eta pintxoak.

21:00etan: Dantzaki taldearen erakustaldia.

21:30ean: Afari herrikoa.

Gaeen: Joselu Anaiak taldearen dantzaldia.

Uztailak 23, larunbata:

16:30ean: Umeentzako ekintzak: puzgarriak eta giza futbolina.

21:00etan: Herri afaria.

Ondoren: Trikitixarekin dantzaldia.

lanean eta festetan euskarazi!

segurtasun termoelektroa, ur beroketa, eguzki-sistemak, zoru bero/freskotasun emalea, berokuntza eta osagarriak



www.orkli.com



E-20240 Ordizia - Tel.: 943 805030 - Faxa: 943 805241 - e-maila: home@orkli.es



Gabiria

Herriko festak

Abuztuak 13, larunbata:

17:00etan: Txupinazoa eta Makila jaitsiera, trikitalariek lagun-durik.

18:00etan: Pilota partiduak: sasi pilotari finalak, nesken sasi-raketari finala eta herriko jubenilen arteko pilota partida.

21:30ean: Gazte afaria herriko plazan.

Afala aurretik eta ondoren: Eskandalue taldea.

Abuztuak 14, igandea:

Goiz eta arratsalde: Biribilketa baserriz baseri herriko txistulariekin.

18:00etan: Herriko gazteen kirol saioa.

19:30ean: VIII. Patata tortilla lehiaketa.

22:00etan: Bertso jaialdia saloian.

00:00etan: Kantuki taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 15, astelehena:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Ormaiztegitik Gabiriara txirindulari igoera herri-tarrentzat.

19:00etan: Goruntz dantza taldeko nagusienek eskainitako saioa.

19:00etan: Bola eta toka lehiaketa.

23:00etan: Laket musika taldearekin dantzaldia goizaldera arte.

02:00etan: Mozorro desfilea.

Goizaldean: Txokolate jana elkartean.

Abuztuak 16, asteartea:

11:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Herriko Goruntz dantza taldeko txikienek eskainitako dantza saioa.

16:30etan: Txikientzako puzgarriak.

17:30ean: Ume jolasak eta mozorro dantza.

19:00etan: Bola eta toka txapelketa.

19:00etan: Sagardo eta txistor dastaketa.

Ondoren: Nahi duenarentzat oilaskoa egongo da salgai.

22:30etan: Kontzertuak: 'Zopilotes Txirrius', 'Obrint Pas' eta 'Egurra ta kitto'.

Goizaldean: Baratzuri zopa jana Erbie elkartean.

Abuztuak 17, asteazkena:

11:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: XX. Tiragoma txapelketa eta bola eta toka herritarrentzat.

19:00etan: Ardo beltz banaketa eta afari merienda.

Arratsaldean eta gauean: Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 18, osteguna:

17:00etan: Herria garbitzera.

Ondoren: Afari merienda herria txukundu eta festetan lan egin dutenentzat.

Zerain

Andre Mari jaiak

Abuztuak 13, larunbata:

18:00etan: Herritarren II. pilota txapelketako finalerdiak plazako frontoi txikian.

20:00etan: Ohiko gibel-jatea Liztormendi Elkartean.

Abuztuak 14, igandea: umeen eguna:

11:00etan aurrera, egun osoan: Puzgarriak eta rokodromoa plazan.

13:00etan: Jaialdia (mozorroak, playback...).

13:30ean: Haur bazkaria Ostatuan.

16:00etan: Haur jolasak. Ondoren merienda eta buruhandiak.

20:00etan: Pregoia, suziriak eta kanpai-bueltakoak festei hasiera emateko.

Segidan: Sagardo-edatea eta txekor jana (txekorra egun guztian zehar burruntzian erretzen egongo da) trikitalariek alaituta.

23:00etan: Erromeria Unsain anaiekin.

Abuztuak 15, astelehena: Andre Mari eguna:

09:00etan: Txistularien goiz-eresia etxez etxe.

10:00etan: Andra Mari bola txapelketaren hasiera.

11:00etan: Meza Nagusia.

11:30ean: Herritarren II. pilota txapelketako finala herriko plazako frontoi txikian

12:30etan: Txakolin dastatzea.

17:00etan: Bola txapelketaren bigarren saioa.

18:00etan: Herri kirolak.

19:00etan: 40 urtetik gorakoen VII. Dantza suelto txapelketa.

20:00etan: Trikipotea Joxe Elorza eta Iñaki Larrañagarekin.

21:00etan: Gazte afaria (Tikeak Mandio dendan salgai).

23:00etan: Erromeria Trakets taldearekin.

01:00etan: Mozorro lehiaketa.

Ondoren: Erromeria goizaldera arte.

Abuztuak 16, asteartea: San Roke eguna:

09:00etan: Txistularien goiz-eresia etxez etxe.

10:00etan: San Roke bola txapelketaren hasiera. Izenematea 9:30etatik aurrera.

11:30ean: Meza Nagusia.

Ondoren: Herriko agintarien soka dantza.

13:00etan: Herriko artzainek egindako Idiazabal Gazta dastatzea ardoarekin.

17:00etan: Bola txapelketaren azken saioa.

17:30ean: Herriko gaztetxoek pilota partidak.

20:30ean: Herri afaria Sebastian Lizaso eta Iker Zubeldia bertsoariarekin.

00:30ean: Asto karrera

Ondoren: Dantzaldia Itzel taldearekin goizalde arte.

Abuztuak 17, asteazkena:

16:00etan: Herri txukuntzea.



Ordiziako areto futbol taldea 1991-1992 denboraldian

Neska talde honek, Federazio Kopa irabazi zuen Tolosako Shantiri 3-1 irabazita.

Zutik, ezkerretik eskuinera: Emilio Ortiz (entrenatzailea), Izaskun Ezkurra, Sorkunde Arze, Veronica Casado, Silbia Morales eta Julen Urrutia (delegatua).

Beheko ilaran: Olatz Bereziartua, Ane Dorronsorro, Doltza Barandiaran eta Josune Amondarain.

Olagi Urte guztian zabalik
Eguneroko menua Karta
Sagardotegia Sagardotegiko meua
Jatetxea

© 943 88 77 26 ALTZAGA

ARANDIA GARAJEA ESEKIDURAK
PNEUMATIKOAK
BIRPROGRAMAZIOAK
POTENTZIA TXIPAK

MULTIMARKA N-1, z/g OLABERRIA
☎ 943 88 09 47

m **Mendizabal, C.B.**
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promoziok, Eraikuntzak, Erreformak...

www.zubara.es
943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak

dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea

 **JOSUNE**
ESTETIKA ZENTROA

Tel.: 943 882 888
J.M. Barandiaran plaza, 3 ORDIZIA
<http://josune.ordizian.com>



ZERBITZUAK

AURPEGIKO ETA GORPUTZEKO
TRATAMENTUAK

MANIKURA ETA PEDIKURA
IRAUNKORRAK

DEPILAZIOAK

LASERRA

SOLARIUMA

MAKILAJEAK

MIKROPIGMENTAZIOA

komunikatzen
laguntzen
dizugu

10
urte zuekin



ACV MULTIMEDIA

WEB GARAPENA & KOMUNIKAZIO GRAFIKOA